

NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIAREN (NLE) DOKUMENTUARI EKARPEN OROKORRAK EGITEKO PROPOSAMENA

1. EKARPENA: DOKUMENTAZIOAREN ARGITASUNA, NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA LANTZEAN ULERMEN ETA PARTE-HARTZE HANDIAGOA IZAN DADIN

“Irizpide orokorre, dokumentuaren egiturari, faseei eta 2022-2050 NLEren parte hartzeari” dagokienez, besteak beste, NLEren idazketak eta grafismoak argia eta erraza izan behar duela zehazten da, jendeari helarazteko erraza; komunikazio argiagoa eta bisualagoa behar da.

Dokumentua aztertu ondoren, terminologia konplexua, anbigua eta teknizismoz eta metaforaz betea erabiltzen da, erraz ulertzeko modua zailtzen duelarik. Idazketa ez da erraza gizarteko sektore guztietara eta herritar guztiengana iristeko. Dokumentuak ez du inolako argitasunik, eta horren ondorioz, herritarrengandik eta NLEren neurriek zuzenean eragin diezaieketen sektore askorengandik urrun dagoen prozesu baten aurrean gaude.

NLEren web orrian jasotako datuek aurretik esandakoa berresten dute: 112 parte-hartzaile, 158 jarraitzaile, iruzkin 1, 20 proposamen eta 21 topaketa.

Beraz, hain garrantzitsua den dokumentu estrategiko batek garapen parte-hartzaileagoa eskatzen du, informatuagoa eta Nafarroako eta eskualde eta udalerrietako eragileen benetako inplikazioarekin. Dokumentuan bertan adierazten du nahitaz bete behar dela NLEk parte-hartze prozesu erreala eta eraginkor bat izatea, Nafarroako gizartearen behar eta asmoekin bat datorrena.

Hori horrela, NLE berria egiteko prozesuaren hurrengo urratsetan, NLE herritarrengana hurbiltzeko eta herritarren parte-hartze eraginkorra bilatzeko mekanismoak gaitu behar dira, haien proposamenak eta kezkek hurbiltasunetik jasoz eta dokumentazio eta euskarri eskuragarriagoak eta ulergarriagoak erabiliz.

2. EKARPENA: NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIAK EZ DU DOKUMENTU LOTESLEA IZAN BEHAR

Nahiz eta dokumentuak indarrean dagoen lege-esparrua aipatzen duen Nafarroako Lurralde Estrategian (NLE) jasotzen diren zehaztapenak orientagarriak direla argitzeko, dokumentuaren ondorengo garapena gogoeta horretatik haratago doa eta ikuspegi lotesletik bideratzen da, toki-erakundeak baldintzatuz haien arau-erabakiak NLEk ezartzen duenaren mende egon daitezen.

Arau-esparruak NLEri izaera loteslea emateko berariazko nahi hori modu esplizituan zehazten da dokumentu honetan: “Hala ere, dokumentu honek kontuan hartzen du posible eta desiragarria dela legegintza-esparru horren bilakaera bat, Lurralde Estrategiaren izaera hori zabal dezakeena izaera lotesleagoa duten zehaztapenak emateko”. “Beste urrats bat eman daiteke eta, esparru juridikoaren erreformaren bidez, izaera loteslea duen tresna bat planteatu daiteke, gutxienez lurralde-ereduari eta funtsezko zehaztapen batzuei dagokienez”.

Helburu lotesle horrek tokiko autonomiaren printzipioa urratzen du Nafarroako eremu edo eskualde bakoitzeko lurraldearen errealitatek abiatuta politika publikoak erabakitzeko eta ezartzeko garaian, eta politika horiek eskualde bakoitzaren beharretatik eta idiosinkrasiatik urrun diseinatutako estrategietan oinarritzera behartzen ditu.

Beraz, tokiko autonomiaren printzipioa errespetatu behar da, eta lurraldetik bertatik sektorekako politikak erabakitzeko eta ezartzeko gaitasuna aitortu behar da, eskualdeetan eta eragindako lurraldean eztabaidatu, aztertu eta erabaki ez diren politikak aplikatzera tokiz gaindiko estrategia lotesleek behartu ez dezaten.

3. EKARPENA: NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BAT SUSTATZEA, DESOREKETAN SAKONDUKO EZ DUENA ETA KOHESIOA ETA LURRALDE EGITURAKETA ZUZENA BULTZATUKO DITUENA

Ezin dira berriro egin aurreko NLEtik abiatuta garatutako neurriek ekarri dituzten egiturazko akats berberak; neurri horiek ez dute ahalbidetu Nafarroa egituratzea eta kohesionatzea, eta bai, ordea, Nafarroaren konfigurazio desorekatua, oreka eta berdintasun helburuen guztiz kontrakoa.

2021ean egin zen diagnostikoak berak ezartzen zuen NLEren ereduak ez dituela lurraldearen okupazioaren joerak berbideratu eta lurraldeen arteko desorekak larriagotu egin direla, Erdialdeko Gune Polinuklearraren inguruan jarduerak eta biztanleria pilotzeko joera nabarmena ahalbidetuz. Era berean, dokumentuak egiaztatzen du Iruñeko hiri-eremuaren inguruko garapenaren indarrak biztanleria handitzea ekarri duela, landa-eremuetako despopulazio-fenomenoekin batera.

NLE berriaren jarduera-ildo berriek, beraz, bultzada bat izan beharko lukete egoera hori bideratzeko eta arrakala hori gehiago ez sakontzeko. Horrela, kontraesana dirudi Nafarroaren oreka eta kohesioa lortzea helburua izatea eta, aldi berean, Tuteraren eta tarteko hirien papera indartzeko apustu irmoa egiten duen eredu baterantz aurrera egin behar dela planteatzea. Dinamika horrek orekatua izan behar du, lurraldeen arteko desorekarik eragin gabe, eta eragin negatiborik izan gabe despopulazioak eta horrek dakarren garapen sozioekonomiko eskasak zigortutako udalerrri eta eremuetan.

4. EKARPENA: NAFARROA OSOARI ERAGITEN DION ESTRATEGIA BATEK ESQUALDE MAILAKO KOHESIOA ERE BERMATZEKO BEHARRA

2005eko NLEren bilakaera baten beharrari dagokionez, egiturazko ondorio negatiboak eragin dituen estrategia errotik birbideratu behar dela ados egonik, printzipioek ere egoera iraultzeko bideratuta egon behar dute, udalerrri jakin batzuetan soilik (eskala txikiagoan bada ere) kontzentratutako biztanleriaren eta jardueren antzeko egoerak berriz gertatu gabe. Hau da, traktoretzat har daitezkeen udalerrriak soilik sustatzera bideratutako balizko garapen estrategikoaren aurrean, eta eskualde bakoitzean udalerrri nagusien zeregina eta garrantzia aitortuta, eskualde-garapen bat beharrezkoa da, eskualdearen beraren kohesioa ahalbidetuko duena, sektore-politika orekatuak definituz, eskualdeak osatzen dituzten udalerrien artean ere gaindiezinak diren desberdintasunak ez sakontzea saiaturaz. Bestela, herri asko despopulazio handiagora kondentatuta egon daitezke, batetik, udalerrri traktoreen gaitasunak bultzatuta, eta, bestetik, Iruñerriaren indar zentralizatzaile handiak bultzatuta. Nafarroako azken hamarkadetakoa bilakaera demografikoari erreparatzea nahikoa da errealitate hori egiaztatzeko.

Beraz, beharrezkoa da joera arriskutsuak iraultzea, gaur egun eskualdeetako herri txikiak desagertzera eramaten dituen, eta eskualdeko gune nagusiak logela-herri huts bihurtzera, Iruñerriaren eragin eta indartze zentralizatzailearen ondorioz.

5. EKARPENA: TOKI ADMINISTRAZIOA ERREFORMATZEKO 4/2019 FORU LEGEA MODU IRMOAN GARATZEKO BEHARRA

Tokiko sektore publikoaren eta instituzionalaren antolaketari dagokionez, NLEk Nafarroako Toki Administrazioa Erreformatzeko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea garatzearen alde egin behar du. Foru lege horrek 12 eskualde mugatzen ditu, udalaz gaindiko zerbitzuen sektore-plangintza batetik planteamenduaren lurralde-ikuskerara batera igaroz, lurralde-oreka bilatuz. Eskualdeak sortzea ahalbidetuz gain, behar adina baliabide gaitu behar dira tokiko eta eskualdeko ikuspegitik lortu nahi diren helburuak garatu ahal izateko, herritarrei kalitatezko zerbitzu publikoak bermatuz.

Eskualde horiek erreferentziazko osasun, hezkuntza, laguntza eta kirol-zentroak izan beharko dituzte beraien eragin-eremuetarako.

Komunitatearen indartzea ahalbidetu behar da, tokiko komunitate indartsuak eraikiz, hurbiltasuneko bizilagunen euskarri izango direnak.

6. EKARPENA: EUSKARA NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIAN EGITURATZEKO ELEMENTU GISA EZARTZEA

NLEren berrikuspenaren arabera, 2005eko NLEn azaldutako printzipioek eta erronkek baliozkoak izaten jarraitzen dute, nahiz eta NLEren zehaztapenen diseinua berriz aztertu. Funtsezko zehaztapenen artean, ulertezina da euskarak egituratze-elementu gisa duen garrantzia alde batera uzten dela. NLEren azken txostenak, 251 orrialdeetan, aipamen bakarra egiten dio euskarari, zehazki 2.1.3 puntuan, «Paisaia eta ondarea: balio handiak eta aniztasuna, erronka anitzen mende» izeneko atalean.

Euskara zeharka inplementatu behar da garapen estrategikoaren diseinuan. Lurraldearen garapenerako, orekarako eta kohesiorako funtsezkoa den dokumentu batek nahitaez jaso behar du bertako hizkuntzaren presentzia eta erabilera bermatu eta sustatzeko konpromisoa, hori ere lurraldearen garapenerako, orekarako eta kohesiorako oinarritzko aldagaia baita. Zeharkako ildo gisa txertatu behar da Lurralde Estrategiaren ardatz guztietan.